

"JUSTIZIA EUSKARAZ" ELKARTEA  
ESTATUTUAK

---

**AITZINSOLASA**  
**OINARRIZKO IRIZPIDEAK**

"Justizia Euskaraz" Elkarteak hurrengo irizpideetan oinarrituko ditu bere asmo nagusiak:

**EUSKARA ERABILTZeko ESKUBIDEA**

Euskara erabiltzeko eskubidea, arlo pribatuan zein publikoan, oinarritzko eskubide ezabaezina da. Eskubide hau onartu eta babesten duten nazioarteko arauen artean, honakoak aipa daitezke:


NAZIO BATUEN baitan: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948ko abenduaren 10ekoa); Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna (1966ko abenduaren 19koa); Gutxiengo nazional edo etnikoetako, erlijiosuetako eta hizkuntz gutxiengoetako partaide diren pertsonen eskubideen Deklarazioa (1992ko abenduaren 18koa).

EUROPAKO KONTSEILUAREN baitan: Oinarritzko eskubideak eta askatasunak babesteko Europako Hitzarmena (Erroma, 1950eko azaroaren 4koa); Europako gutxiengoaren hizkuntzen eta dialektoen hezkuntza- eta kultura-arazoei buruzko 928. Gomendioa (1981eko urriaren 7koa); Herrialdeetako eta gutxiengoaren hizkuntzen Europako Gutuna (Strasbourg, 1992ko urriaren 2koa, Espainiako Erresumak berretsi duena, ez ordea Frantziako Errepublikak); Gutxiengo nazionalak babesteko Akordio Markoa eta txosten azalgarria (Strasbourg, 1994ko azarokoa).

**ESPARRU ZEHATZA: JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA**

"Justizia Euskaraz" Elkarteak xede eta lan esparru zehatz bat izango du:

- Justizia Administrazioaren eremuan, euskaldunon hizkuntz eskubideak betearaztea, hau da, euskararen erabilera bermatuko duen Justizia Administrazioa bultzatzea,
- Justiziarikiko harremanak eta prozedura eginbideak normaltasun osoz euskaraz gara daitezen,
- eta inolako herritarrek ez dezan pairatu, hizkuntz eskubideak egikaritu nahi izateagatik, diskriminazio, arrazoi gabeko atzeratze, isun, zigor edo bestelako kalterik.
- Xede horretarako, Justizia Administrazioarekin lotutako prozedura eta gai guztietan izango du zer esanik Elkarteak, eta Justiziarekin zerikusirik duten erakunde eta eragile guztiei eskatuko die euskararen erabilera bermatzea. Erakunde publikoen kasuan, Justiziarekin dituzten harreman guztietan eskatuko zaie euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatzea (Udalak, Foru Aldundiak, Jaurlaritza, Estatuko bestelako administrazioak). Erakunde pribatuen kasuan ere berdin eskatuko zaie, Justiziarekin harremana dutenerako publiko bat eman behar dutela aintzat hartuta, hala izaera publikoa nola pribatua izan eragile

  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
JUSTIZIA, LANBETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones

**“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK**

---

horiek; eta funtzionario publikoen artean, berdin izango delarik zein administrazioen menpe dauden. (Epaileak, Idazkari Judizialak, justiziari lotutako funtzionarioak, Fiskalak, Abokatuak, Prokuradoreak, Ertzaintza, eta abar).

- Xede nagusi horrekin batera, horri lotutako bestelako helburuak izango ditu Elkarteak: erakunde eta eragileei proposamen eta plangintza zehatzak eskaintzea, euskararen erabilerari buruzko estatistikak egitea, hizkuntz eskubideek jasaten dituzten urrapenak salatzea, euskara tekniko-juridikoa lantzeko ekimenak abiaraztea, eta abar.

### **LURRALDE EREMUA**

“Justizia Euskaraz” Elkartearen lurralde eremua Euskal Herria izango da.

### **ORDENAMENDU JURIDIKO EZBERDINAK**

Lehen aipatu Euskal Herrian ordenamendu juridiko ezberdinak daude indarrean: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian Espainiako Erresumako legedia dago indarrean; Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoan, berriz, Frantziako Errepublikakoa.

Lekuan leku, egoera juridiko ezberdina du euskara erabiltzeko eskubideak: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen dute, eta euskarak ofizialtasun osoa du; Nafarroa Garaiak Nafarroako Foru Erkidegoa osatzen du, eta hiru eremutan banatzen da euskararen ofizialtasun maila (eremu euskalduna, gazteleraduna eta mistoa); horiek guztiak Espainiako Erresumaren barruan daude, eta honek Herrialdeetako eta Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutuna berretsi du, Justizia Administrazioaren esparruan euskararen babes-neurri garrantzitsuak ezartzen dituena; Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoan, aldiz, euskarak ez du inolako babes edo ofizialtasunik, hezkuntzaren inguruko lege gutxi batzuk baino.

Egoera horren aurrean, euskara erabiltzeko eskubidea betearazteko gauzatu beharreko helburu, bide, estrategia eta aldarrikapenak oso ezberdinak dira eremu bakoitzean.

Euskara ofiziala den lekuetan, nabaria da ofizialtasun hori ez dela Justizia Administrazioan gauzatzen. Leku hauetan, beraz, indarrean dauden legeen benetako betearazpena izango da aldarrikapen nagusia.

Euskara ofiziala ez den lekuetan, berriz, lehenengo urratsa ofizialtasuna eta Justizia Administrazioan euskararen erabilera babestuko duten arautegi eta bitartekoak aldarrikatzea izango da, arau horien betearazpenarekin batera.

Beti ere, une bakoitzean indarrean dauden lege edo arauak izan ditzaketen gabeziak salatzeari uko egin gabe.



**“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK**

---

**ELKARTE BAZKIDEAK**

“Justizia Euskaraz” Elkarte formazio juridikoa eta Justizia Administrazioarekin harreman hertsia duten profesionalen osatutako Elkarte izango da. Aldez aurretik finkatutako lan esparru zehatz horretan, Elkarteak eskaini ahal izango duen ekarpenak berezitasun nabarmen bat izango du, eremu horretan abian dauden bestelako herri ekimenen osagarri izango dena: formazio juridikoan eta Justizia Administrazioaren ezagutzan oinarrituko da Elkartearen ekarpen hori.

Beraz, honakoak izan daitezke “Justizia Euskaraz” Elkarteko kide:

Justizia Administrazioarekin harreman profesionala duen euskaldun oro: Epaile, Magistratu, Idazkari Judizial, Fiskal, Abokatu, Prokuradore, Zuzenbide irakasle, Notario, Erregistratzaile eta, orokorrean, zuzenbidean lizentziatuak diren guztiak; bai eta, zuzenbidean lizentziatu izan ez arren, justizia administrazioan lan egiten duten euskaldunak.

**JARDUERAK**

Unean uneko gertakariei erantzutea garrantzizkoa izan daitekeen arren, jarduera aktiboa izan behar du elkarteak, ekimen ezberdinak abian jarrita. Mota askotako proiektu eta egitasmoak sortu beharko dira, bai eta horiek gauzatzeko lantalde edo batzordeak ere.

Zuzenbidearen inguruko etengabeko trebakuntzak ere badu garrantzia, eta elkarte plataforma egokia izango da hitzaldi, jardunaldi eta ikastaroak antolatzeko.

Aldizkariak edo bestelako argitalpenak sortzea ere aurreko lanaren ondorioz etorriko da.

Beharrezko ere baderitzogu euskalgintzan ari diren beste elkarteekin kontaktuak eta elkarlana bultzatzeari.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones

“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK

**I. ATALA**

**Izena, xedea, lurralde eremua eta egoitza**

**1. ARTIKULUA.- Izena.**

Elkarte honen izena <“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA> da.

“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA irabazi-asmorik gabeko erakundea da eta estatutu hauen zein lekuan lekuko Elkartea Legeen arabera arautuko da. *1/2002 L.O. eta Eusko Legebiltzarreko 3/1988ko legea.*

**2. ARTIKULUA.- Xedea.**

“JUSTIZIA EUSKARAZ” Elkartek xede eta lan esparru zehatz bat izango du: Justizia Administrazioaren eremuan, euskaldunon hizkuntz eskubideak betearaztea, hau da, euskararen erabilera bermatuko duen Justizia Administrazioa bultzatzea, Justiziarekiko harremanak eta prozedura eginbideak normaltasun osoz euskaraz gauza ahal izan daitezen, eta inork ez dezan pairatu, hizkuntz eskubideak egikaritu nahi izateagatik, diskriminazio, arrazoi gabeko atzeratze, isun, zigor edo bestelako kalterik.

Helburu horretarako, Justizia Administrazioarekin lotutako prozedura eta gai guztietan izango du zer esanik Elkartek, eta Justiziarekin zerikusirik duten erakunde eta eragile guztiei eskatuko die euskararen erabilera bermatzea.

Xede nagusi horrekin batera, horri lotutako bestelako helburuak izango ditu Elkartek: erakunde eta eragileei proposamen eta plangintza zehatzak eskaintzea, euskararen erabilerari buruzko estatistikak egitea, hizkuntz eskubideek jasaten dituzten urrapenak salatzea, baita edozelako akzio judizial abiarazita ere, euskara tekniko-juridikoa lantzeko ekimenak abiaraztea, euskalgintzaren esparruan aritzen diren beste erakunde eta elkarteekin harremanak bultzatzea, eta abar.

**3. ARTIKULUA.- Lurralde eremua**

“JUSTIZIA EUSKARAZ” Elkartearen lurralde eremua Euskal Herria izango da.

Lurralde eremu honetan, euskara sustatzeko xedea duten bestelako elkarteekin itunak, hitzarmenak, kolaborazioak eta elkartze modu egonkorragoak gauzatu ahal izango ditu, bai eta eremu honetatik kanpoko elkarteekin ere, baldin eta azken hauen xedea Justizia Administrazioaren esparruan gutxiengo hizkuntza bat sustatzea bada.

**4. ARTIKULUA.- Hizkuntza.**

“JUSTIZIA EUSKARAZ” Elkartearen barne lanetarako hizkuntza euskara izango da.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAIA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones

**“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK**

---

Kanpo harremanetarako hizkuntza nagusia ere euskara izango da, nahiz eta Elkartearen xedeak, iritziak eta ekimenak plazaratzeko, euskararekin batera beti ere, bestelako hizkuntzarik erabiltzea aukeratu ahal izango duen.

**5. ARTIKULUA.- Egoitza.**

“JUSTIZIA EUSKARAZ” Elkartearen egoitza Bilbon egongo da, San Mames Zumarkalea, 34-3.ean. Batzar Orokorrak izango du egoitza hau aldatzeko ahalmena.

**6. ARTIKULUA.- Nortasun juridikoa eta gaitasuna.**

“JUSTIZIA EUSKARAZ” Elkarteak nortasun juridiko eta gaitasun osoa izango du, akzioak egikaritu, kontratuak egin eta bere ondasunak erabili, xedatu eta kudeatzeko, bai eta bere xedearekin lotutako edozelako eginbide gauzatzeko ere.

**7. ARTIKULUA.-**

Elkartea betirako eratzen da. Ez Ohiko Batzar Orokorren erabaki bidez baino ezingo da desegin, V. Atalean esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren bategatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne antolamendua demokratikoak izan beharko dira, eta pluraltasuna erabat errespetatu beharko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

**II. ATALA**

**Bazkideak**

**8. ARTIKULUA.- Bazkide izateko baldintzak eta onarpen bideak.**

Honakoak izan daitezke “JUSTIZIA EUSKARAZ” Elkarteko kide:

Justizia Administrazioarekin harreman profesionala duen euskaldun oro: Epaille, Magistratu, Idazkari Judizial, Fiskal, Abokatu, Prokuradore, Zuzenbide irakasle, Notario, Erregistratzaile eta, orokorrean, zuzenbidean lizentziatuak diren guztiak; bai eta, zuzenbidean lizentziatu izan ez diren, justizia administrazioan lan egiten duten euskaldunak.

**“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK**

---

Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea. Idatzi hori bi bazkidek izenpetuko dute eta Lehendakariari zuzenduko zaio. Lehendakariak horren berri Zuzendaritza Batzordeari emango dio, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Dena den, gorako errekurtsioa jarri ahal izango da Batzar Orokorren aurrean.

**9. ARTIKULUA.- Bazkideen eskubideak.**

Honakoak izango dira bazkideen eskubideak:

- a) Batzar Orokorretan parte hartzea, ahots eta botoarekin.
- b) Zuzendaritza Batzordearen kideak aukeratu eta kargu horretarako hautatua izan ahal izatea.
- d) Zuzendaritza Batzordeari iradokizunak, kexak eta Elkartearen funtzionamendu egokiarekin lotutako edozelako komunikazioak zuzentzea.
- e) Elkartearen funtzionamenduari buruzko informazioa eskatzea, egoera ekonomikoari buruz batez ere.
- f) Elkartearen jarduera, ekimen eta lan-talde guztietan parte hartu ahal izatea.
- g) Zuzendaritza Batzordeak estatutuen aurka hartutako erabakiak inpugnatzea.

**10. ARTIKULUA.- Bazkideen betebeharrak.**

Honakoak izango dira Bazkideen betebeharrak:

- a) Elkartearen xede, jarduera eta ekimenetan modu aktiboan parte hartzea.
- b) Batzarrak eta Zuzendaritza Batzordeak estatutuei eta bestelako erregelamenduei jarraiki hartutako erabakiak betetzea.
- d) Elkartearen mantenu ekonomikorako ekarpenak ematea, Batzar Orokorrek onartutako kuotak ordainduz.
- e) Elkarteak emandako kargu edo ardurak zintzoki betetzea.
- f) Batzar Orokorretan parte hartzea, hala ohikoetan nola ez ohikoetan.

**11. ARTIKULUA.- Bazkide izaera galtzeko zioak.**

- a) Bazkideak bere gogoz baja eskatzea. Idatziz jakinarazi beharko dio Zuzendaritza Batzordeari.



JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Elkarteen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones

**“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK**

---

- b) Heriotza.
- c) Elkartearen bi kuota, posta ziurtatuz jakinarazita gero ere, ez ordaintzea.
- d) Zehapen espediente baten osteko kanporatzea.

Azken bi neurri hau hartu ahal izateko, diziplina eraentza eta prozedura ezarriko duen erregelamendu bat proposatu beharko du Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak onartu.

**III. ATALA**

**Gobernu Organoak**

**12. ARTIKULUA.- Gobernu Organoak.**

“JUSTIZIA EUSKARAZ” Elkartearen gobernu organoak Batzar Orokorra eta Zuzendaritza Batzordea dira.

**13. ARTIKULUA.- Batzar Orokorra.**

Batzar Orokorra Bazkide guztiek osatuko dute, eta Elkartearen organo gorena da. Ohikoa eta ez ohikoa izan daiteke.

Ohiko Batzar Orokorra urtean behin bilduko da, urteroko lehen hiruhilabetean, eta hurrengoa izango da bere gai ordena:

- 1.- Aurreko ekitaldiko jarduera txostenaren irakurketa.
- 2.- Aurreko ekitaldiko diru-kontuen aurkezpen eta onarpena.
- 3.- Urte berriko ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpen eta onarpena.
- 4.- Zuzendaritza Batzordeko kideen aukeraketa eta berriztapena.

Aurreko ekitaldiko txostena eta diru-kontuen egoera, eta urte berrirako aurrekontua Zuzendaritza Batzordeak aurkeztuko beharko ditu.

**14. ARTIKULUA.- Ez Ohiko Batzar Orokorra.**



**“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK**

---

Ez Ohiko Batzar Orokorra hurrengoek deitu ahal izango dute: Elkarteko Lehendakariak, Zuzendaritza Batzordeak eta bazkideen %10ak, Lehendakariari zuzendutako idatzi baten bitartez. Guztiek ere deialdiaren gai ordena eta zioak azaldu beharko dituzte eskakizunean.

Eskakizuna aurrekoek bideratu eta gero, Lehendakariak egingo du deialdia, hamabost eguneko aurrerapenarekin gutxienez eta bazkide guztiei idatziz zuzenduta. Deialdiak eskakizunaren egileek proposatutako gai ordena jasoko du.

**15. ARTIKULUA.- Ez Ohiko Batzar Orokorraren ahalmenak.**

a) Estatutuak aldatzea.

b) Elkartea desegitea.

d) Ohiko Batzar Orokorrari eta Zuzendaritza Batzordeari ez dagokien bestelako edozein ahalmen.

e) Beste elkarteren batekin federatu edo modu egonkorrean elkartu ahal izateko erabakia hartzea.

**16. ARTIKULUA.- Batzar Orokorraren eraketa**

Batzar Orokorra, hala ohikoa nola ez ohikoa, zuzenki eratzeke, bazkideen erdiak eta bat gehiagok osatu beharko dute lehenengo deialdia. Horrela ez bada, ordu erdi buruan irekiko da bigarren deialdia, parte hartzaileen kopurua edozein dela ere.

**17. ARTIKULUA.- Batzar Orokorraren erabakiak eta boto eskubidea**

Bazkide guztiek izango dute Batzar Orokorrean botoa emateko eskubidea. Zuzendaritza Batzordeak proposatu eta Batzar Orokorrak onartu beharreko diziplina erregelamenduan ezarri ahal izango dira boto eskubide hori galtzeko arrazoiak.

Batzar Orokorraren erabakiak parte hatzen dutenen gehiengoz hartuko dira.

**18. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordea.**

Zuzendaritza Batzordeko karguak doakoak dira. Izendapena lau urtetarako izango da.

Karguren bat hutsik geldituz gero, arrazoa edozelakoa dela ere, Zuzendaritza Batzordeak behin behineko ordezkari bat izendatu ahal izango du bazkide guztien artean aukeratuta edo kargua hutsik utzi ahal izango du, harik eta hurrengo Ohiko Batzar Orokorra egin arte. Ohiko Batzar



JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE-SEGURANTZA-SAILA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones



**“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK**

---

Orokor honetan aukeratutako bazkideak aurrekoari gelditzen zitzaion epean egikarituko du bere kargua.

**19. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordearen egitekoak.**

- a) Batzar Orokorren erabakiak betearaztea.
- b) Elkartearen xedeak gauzatzeko ekimenak proposatu eta abiaraztea.
- d) Elkartearen administrazio eta kudeaketa lanak gauzatzea.
- e) Bazkideen onarpenak, bajak eta zehapen espedienteak erabakitzea.
- f) Batzar Orokorra deitzea.
- g) Elkartearen funtzionamendu eta administrazio onerako beharrezko den beste edozelako funtzio betetzea.

**20. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendua.**

Zuzendaritza Batzordea hilean behin bilduko da gutxienez, bai eta Lehendakariak edo bost bazkidek helburu zehatz baterako eskatzen dutenean ere.

Erabakiak hartzeko Zuzendaritza Batzordearen kideen gehiengoa beharko da. Berdinketa izanez gero, Lehendakariaren botoak erabakiko du.

**21. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordearen osaketa.**

Zuzendaritza Batzordearen kide kopurua lehendabiziko Batzar Orokor sortzaileak erabakiko du. Gutxienez, Lehendakariak, Lehendakariordeak, Idazkariak eta Diruzainak osatuko dute, bai eta Batzar Orokor horrek finkatutako Bokal kopuru batek ere.

**22. ARTIKULUA.- Lehendakaria.**

Lehendakaria Batzar Orokorrek aukeratuko du, lau urteko epe batetarako. Kargua uzteko arrazoiak, borondatezkoek edo nahitaezkoek gain, Diziiplina erregelamenduak ezarriko ditu.

Honakoak izango dira bere ahalmenak:

- a) Elkartearen legezko ordezkaritza.
- b) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrek deitu eta horietan buru izatea



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones

**“JUSTIZIA EUSKARAZ” ELKARTEA  
ESTATUTUAK**

---

d) Estatutu hauek, Batzar Orokorraren erabakiak eta Zuzendaritza Batzordearenak betearaztea, bai eta orokorrean Elkartearen onerako diren bestelako jarduerak ere.

**23. ARTIKULUA.- Lehendakariordea.**

Lehendakariak bere kargua egikaritu ezin duen unetan (absentzia, gaixotasun edo bestelako arrazoiak medio), Lehendakariordeak beteko ditu haren funtzioak behin behineko. Bestelakoetan, Zuzendaritza Batzordeak agindutako funtzioak izango ditu.

**24. ARTIKULUA.- Idazkaria.**

Honakoak izango dira bere egitekoak:

- a) Bazkideen errolda zerrenda eta Batzar Orokor zein Zuzendaritza Batzordearen akta liburuak kudeatzea.
- b) Elkartearen artxiboa gorde eta kudeatzea.
- d) Batzar Orokor zein Zuzendaritza Batzordearen aktak jasotzea.
- e) Elkartearen dokumentazioaren inguruko ziurtagiriak ematea, Lehendakariaren onespenezekin.
- f) Elkartearen komunikazioak eta bestelako administrazio funtzioak bideratzea.

**25. ARTIKULUA.- Diruzaina.**

Honakoak izango dira Diruzainaren egitekoak:

- a) Elkartearen kontabilitate liburuak gorde eta kudeatzea, eta Elkartearen ondarearen erantzule izatea Zuzendaritza Batzordearen aurrean.
- b) Diru-sarrerak eta ordainketak kudeatzea, Zuzendaritza Batzordearen aginduz eta onartutako aurrekontuei jarraiki.
- d) Zuzendaritza Batzordeari Elkartearen kudeaketa ekonomikoaren inguruko unean uneko informazioa ematea, eta Ohiko Batzar Orokorrari kontu horien informazioa ematea.
- e) Beharrezko diren banku kontuak ireki eta kudeatzea.

**26. ARTIKULUA.- Bokalak.**

Zuzendaritza Batzordeak agindutako funtzioak izango dira Bokalen egitekoa.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones  
1218-10

## IV. ATALA

### Bitarteko ekonomikoak eta Aurrekontua

#### 27. ARTIKULUA.- Elkartearen sortze-ondarea, ekonomia-ekitaldia eta diru-kudeaketa.

Elkarteak ez du sortze-ondarerik.

Elkartearen ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren lehen itxiko da.

Elkarteak, jarduera ekonomikoak gauzatuta, lortzen dituen irabaziak haren helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez ezta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-erlazioan bizi diren pertsonekin, ez eta haien senideekin ere, 31. artikuluan aurreikusitako desgite kasua salbu. Ezingo zaizkio, halaber, mozkinak irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

#### 28. ARTIKULUA.- Bitarteko ekonomikoak.

Honakoak izango dira Elkartearen bitarteko ekonomikoak:

- a) Bazkideen kuotak eta bestelako ekarpenak.
- b) Ondare propioaren errendimendua.
- d) Zuzendaritza Batzordeak onartutako dohaintza, diru-laguntza, jaraunspen eta legatuak.
- e) Erakunde publiko zein pribatuek emandako diru-laguntzak.
- f) Bestelako diru-sarrerak, beti ere legezkoak izan beharko dutelarik, eta ezin izango dutelarik Elkartearen independentzia kolokan jarri.

#### 29. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna.

Zuzendaritza Batzordea da Elkartearen kudeaketa ekonomikoaren erantzule, eta Batzar Orokorrak onartutako aurrekontuari jarraiki bete beharko du kudeaketa hori.



JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones

V. ATALA

**Estatutuen aldaketa eta Elkartea desegitea**

**30. ARTIKULUA.- Estatutuen aldaketa.**

Estatutu hauen aldaketa Ez Ohiko Batzar Orokorrean erabaki beharko da, parte hartzen duten bazkide kopuruaren erdia baino boto gehiagorekin.

**31. ARTIKULUA.- Elkartea desegitea.**

Elkartea desegiteko, gai ordenan puntu bakar hau izango duen Ez Ohiko Batzar Orokor batean erabaki beharko da, parte hartzen duten bazkideen botoen bi herenak behar izango direlarik.

Hori horrela izanik ere, ezin izango da Elkartea desegin baldin eta hogeitaz bazkidek Elkartearekin jarraitzeko asmoa azaltzen badute.

Desegitea erabakiz gero, Ez Ohiko Batzar Orokor horrek berak likidazio batzorde bat izendatu beharko du, eta honek Elkartearen diru-sarrerak eta zorrak likidatzeko ardura hartuko du.

Gainerako dirurik eta ondasun higiezin edo higigarririk geldituz gero, Ez Ohiko Batzar Orokor horrek berak erabakiko du ondare hori dirutan bihurturik, Elkartearen antzeko helburuak dituen zein irabazpenak lortzeko asmorik gabeko beste Elkartearen esku utziko den.

Elkartearen artxibategia eta agiri ondarea erakunde publikoren baten Artxibo Historikoaren esku utziko da. Erabaki hau ere aipatu Batzar Orokorak hartuko du.



*Esteban Uruen Argia.*



JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones

B/11335/2004

estatutuak onartu eta ondo on, Elkarteen Errolda Nagu-  
da sortarazten duen Euzko Jaurlaritzaren, Martxo-  
ren 77/1986 Dekretuan eta hori datazkezikion gainontze-  
ta mantentzen ere zehaztutako endorioetarako.



Visados los presentes estatutos, a los efectos deter-  
minados en el Decreto 77/1986, de 25 de Marzo, del  
Gobierno Vasco, por el que se crea el Registro Gene-  
ral de Asociaciones y demás normativa concordante.

Bilbon 2004ko irailaren 7an

En Bilbao, a 7 de septiembre de 2004

ERROLDARORADUNA

EL ENCARGADO DEL REGISTRO

  
  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Elkarteen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Asociaciones